

Toti Martínez de Lezea



Sorgin Belarra

n a r r a t i b a

e r e i n

SORGIN BELARRA

Narratiba, 119

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra
(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com;
91 702 19 70 / 93 272 04 47)

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2019ko azaroan

Jatorrizko izenburua:

Hierba de Brujas

Azalaren diseinua:

Aritz Albaizor

Maketazioa:

Erein

Itzulpena:

Miren Arratibel

© Toti Martínez de Lezea

© EREIN. Donostia 2019

ISBN: 978-84-9109-492-0

L. G.: SS-1089/2019

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20560 Oiñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

e-mail: gertu@gertu.net

www.gertu.net

Toti Martínez de Lezea

SORGIN BELARRA

Itzulpena:
Miren Arratibel



Itziar Zaballari,
zazpi alabetan zazpigarrenari

Eskerrik asko:
Koldo Villalba, Iratiko oihaneko gida
Alfonso Baneres, B.A.S.A. T.I.ko albataria

Hiru egun amaigabe iraun zituen erdialdiak, eta ama erdiberriak ozta-ozta izan zuen haurraren aurpegi gorritxoa ikusteko astia, begiak betiko itxi aurretik. Izeba Constanzak jaioberria garbitu, bildots sortu berriaren artilezko manta leun batean bildu, eta aitari eraman zion; egongelan zain zegoen aita, baina umea eraman ziotenean, ez zion begiratu ere egin. Begirada sutondoan iltzatuta, ardo kopa eskuin eskuan eta masailezurak estu-estu, gauza bakarra zerabilen don Juan Urruztia notarioak gogoan: bere emazte maitea, zeinaren bizia ebatsi zioten ustekabeen. Berak ez zuen semerik nahi, emakume hura baizik, ezinezkoa zirudien zerbait lortu baitzuen: emaztea hartzea, mutiko gazte bat balitz bezalaxe maitemintzea, noiz, eta lokietako ilea urdintzen hasia zuen adinean. Bere alboan nahi zuen Katalina ohean; nahi zuen haren gorputza sentitu, akitu arte hura maitatu, egunsentia haren besoetan ikusi eta berriro haren ganu barneratu, gozamenaren eztitasunean. Jainkoa bera

madarikatu zuen, jakin zuenean ezingo zuela sekula gehiago laztandu haren ilea eta galdu haren begiradan. Eta madarikatu zuen haren heriotzaren erruduna: aitak ez zuela maite, ez zuela inoiz maiteko, ulertuko balu bezala izebaren besoen artean urduri mugitzen zen txikitxo hura. Don Juanek ez ikusiarena egin zion, eta axolagabe jaso zituen sorbaldak, arrebak galdetu zionean hazama bat hartu beharko ote zuten eta haurrari zer izen jarriko zioten. Hala, bada, izebak umea bere logelara eraman, eta Bernabe izena aukeratu zuen, «kontsolazioaren semea», maitasun gaixobera eta obsesiozko bat baitzuen haur harekiko, ezin izan zuelako ama izan eta alargun utzi zuelako senarrak, zeukan adinarekin eta bere aberastasun urriekin bigarrenez ezkontzea ezinezkoa izango zitzaion adin batean. Alargundu zenetik anaiarekin bizi zen; gizon suminkorra zen anaia, eta bere etxean hartu zuen arreba, baina etxezain modura, senide modura baino gehiago. Uzten zion, halere, etxeko kontuak eramaten, eta halaxe lortu zuen iloba elikatzeko hazama on bat hartzea. Haurrari titia kendu arte soilik, inola ere ez baitzuen partekatu nahi haren maitasuna beste emakume batekin. Horrelaxe hasi zen Bernabe Urruztiaren bizitza.

Lehen zazpi urteak izebaren gonapean igaro zituen: harekin lo egiten zuen, harekin jaten zuen eta harekin ateratzen zen kalera, eta karrusel batekin jolasean edo egurrezko panpina bat janzten eta eranzten entretenitzen zen, izeba brodatzen aritzen zen bitartean, irribarrea ezpainetan. Mutikoa baino gehiago, neskatoa zirudien haurtxoak, ile luzea baitzeukan, luzeegia; izebak nekerik gabe orrazten zuen eta apaintzen zuen satinezko xingolez. Ez zuen aita ia inoiz

ikusten, eta, ikusten zuen apurretan, oharkabeen igarotzen saiatu, eta isil-isilik egoten zen: ongi baino hobeto zekien bere presentzia hutsak zenbat gogaitzen zuen jauna, ez baitzion hitz erdirik esaten inoiz. Harik eta, egun batez, don Juan itzarrri bezala egin zen arte emaztea hil zitzaionetik izandako barkartze hartatik; begiratu zion semeari, eta begiratu arrebari, baina ez zuen ezertxo ere esan. Handik astebetara, bi fraide etxean agertu, eta umea eramán zuten; alferrik izan ziren haren eta doña Constanzaren oihuak eta negarrak: notarioak erabakita zeukan Bernabe erlijiosoek heziko zutela, eta ez bere ustez burua nahastua zuen eta haurra emagizontzen ari zen emakume batek.

Monasterioko bizitza tortura latza izan zen ezti mami-tan hazitako eta amatzakoak amets guztiak berehalakoan betetzen ohitutako ume harentzat. Ilea larru arras moztu, eta artile harizko tunika bat eta sandalia batzuk jantzi zizkio-ten ordura arteko janzkera dotorearen eta ardi larruzko zapa-pata finen ordez. Jateko, ogi puska bat eta lekale edo barazki gisatuén gopor bat, urte sasoiaren arabera, eta haragi zatiren bat: ez zuen beste elikagairik. Karkabako ur izoztuaz garbitzen zen, eta baldekadaka bustitzen zuten hilean behin, ur hotzez orduan ere, zolda kentzeko; eta beste nobizio batzuekin lo egiten zuen, lastaira baten gainean, manta zakar batez estalirik. Arreta galerarik edo hutsik txikiena nahikoa zen ipurmasail biluzietan makilakada eder batzuk jasotzeko, fraide eta nobizioen bistan, eta bere eguna, guztiena bezalaxe, otoitz ordu kanonikoek arautzen zuten: haiek eteten zituzten loaldia eta baratzeko jarduna. Hezur eta azal gelditu zen, eta are nabarmenagoa egin zitzaion aurpegiko

berezko zurbiltasuna; eta begirada galduta bezala zuenez, auzokoen artean limosna biltzeko ardura zuen fraideari laguntzen zion astean behin. Mutikoaren itxura zargalduak eragiten zuen nahigabeak bihotzak biguntzen zituen, eta poltsak arindu. Txanponik sobera ez zuenak ogia, sagarra, gaztainak edo, akaso, oilasko iharren bat emango zion, eta, zena zelako hura, ziztuan gordetzen zuen fraideak bere zorroan. Horrelaxe igaro ziren Bernaberen itxialdiko lehen bost urteak, toki hartatik atera gabe, izeba maitea ikusi gabe, laztan goxorik gabe. Harik eta, egun batez, patua aldatu zitzaion arte.

Mutikoak besteek ez bezalako inteligentzia eta ikasteko ahalmena zituela ohartu eta etorkizunean oso baliagarria izan zitekeela pentsatuta, abadeak agindu zuen utz zitzala baratze lanak eta eskea, eta ekin ziezaiola ikasteari: aurretantzean, monasterioko *scriptorium* txikiko arduradunaren laguntzailea izango zen. Frai Paulino gizon adintsua zen, hitz gutxikoa, eta batere adeitsua ez, oro har; baina begitartea aldatzen zitzaion errege altxorraren zaindarien zorrotasunaz gordetzen zituen kodizeetako bat eskuetan hartu orduko. Kolorez eta urre eta zilar atxikiz egindako edertzapen xeheak miretsi, eta orrialdez orrialde irakurtzen zituen liburu haiek, patxadaz, hitzak dastatuz, aforismo bereziki ederren batekin gozatuz. Jada ez zen egiten antzina bezalako liburu miniatu-rik, eta, haren ustez, itzelezko kaltea egin zuen inprentak, orotariko jendei zabaldu baitzien jakintzaren atea.

—Ahalmen handiko arma da jakintza, profetek eta ebanjelariak erakutsi ziguten dotrina arbuiatzen duten adimen gaiztoen eskuetan —esaten zuen maiz.

Sistema tradizionala erabiltzen jarraitzen zuen berak: eskuz egiten zituen kopiak, testua besterik ez bazen ere. Ez zuen ilustrazioak egiteko adinako trebetasunik, ez berak ez bere bi laguntzaileek ere, laguntzen ziotenek monasterioko liburutegiko dozena erdi apaletan egoera ezin okerragoan kontserbatutako obrak erreproduzitzen; eta antzina beste esku batzuek idatzitako hitzak kopiatuz etsi behar zuten. Hasieran, Bernaberen egitekoak izan ziren aretoa garbitzea, hiru monjeen laneko mahaiak txukun edukitzea, lumak eta tintontziak garbitzea, eta tinta prestatzea. Hura izan zuen lehen harremana beretzat misterioz beteriko antzea zen jarduera harekin: kuku-sagarrak almaizean txikitu eta eho, eta euri uretan beratzen jartzen zuen hautsa; nahastura bahetu eta menaslore olio gehitzen zion, gero, eta zenbait egunez uzten zuen, ongi eragin ondoren. Amaitzeko, Paulinok akazia goma gehitzen zion. Giltzapean gordeta edukitzen zuen produktu hura, ez baitzen lortzen erraza: merkatari batengandik eskuratzen zituen, hain zuzen, akazia gomak eta behi larruzko papera, bezerorik onena liburuzaina zuela jakinik, urtean pare bat bider monasterioan gelditzen zen merkatari batengandik.

Bernabe irrikaz zegoen paper gainean idazten hasteko: bost axola zitzaion kotoi paperean idatzi behar bazuen ere, zakarragoa izan arren, baina arbelezko hagatxo batez harlauzen gainean idazten soilik uzten zion maisuak. Eta ezin izan zion irrikari eutsi. Liburutegian bakarrik zegoen behin batean, busti zuen kalamu luma orratz bat tintatan, eta bere izena idatzi zuen bazter utzitako paper puska batean. Abizena jartzera zihoan unean harrapatu zuen maisuak, eta egundoko zartakoa jo zion garondoan. Kolpearen bultzadaz, aurpegi

mahaia jo zuen, tintontzia irauli egin zen, eta tintaz zikindu zitzaizkion eskuin masaila, bekaina eta kopeta aldean. Luze iraun zion tinta orbanak, baina, harrezkero, fraidearen baimena izan zuen idazteko: testu laburrak, hasieran, gero eta luzeagoak, nolako aurrerapenak egiten ari zen ikusi ahala. Hiru kopiatazaileak adintsuak zirela, bista gandutzen hasia zitzaizela, eta pulstua ere ez zutela garai batean bezain irmo, gazteak laster hartu zien aurrea iaioatasunean eta maisutasunean.

Kopiatu zuen lehen liburua liburutegi txikiko altxorra izan zen: «Beatoak» zeritzenetako bat, Liebanako monjearen *Commentarium in Apocalypsin* jatorrizkotik kopiatua era berean. Zuri utzi zituen edertzapenetarako hutsuneak, egunen batean maisu edertzailereren batek haiek erreproduzituko zituen itxaropenez, eta arreta guztia jarri zuen idazketan, zenbait mende lehenago sortutako testu ohoragarriaren mezuan. Gelditu egiten zen hitz misteriotsu bat topatu orduko –zigiluak, sinboloak, ikuskariak, jargoiak, izurriak, aingeruak, adarrak...–, haien esanahia asmatu nahian; igarri nahian Jainkoaren artaldea sarraskitzen ari zen antikristoari azkena emateko aukeratuentzako sekretua, bera ere aukeratuetakoa zela erabat sinetsirik.

Halaxe, otoitz, diziplina, ikasketa eta eginbeharretan eman zituen Bernabek bizitzako hurrengo lau urteak, bere baitara gero eta bilduago, aszeta bihurturik, hainbeste, non kargu hartu behar izan baitzion abadeak. Izan ere, Bernaberen jarrerak gogaitu egiten zituen gainerako fraideak, ez baitzen batere ohikoa nobizio batek penitentziagile batek adinako grina izatea. Bernabek berean jarraitu zuen, ordea: liburutegiko liburu guztiak irakurri zituen, baita berrirakurri

ere, besterik ezean, buruz ikasi arte. Halako irrika zuen eza-gutzarako, bere testuak idazteari ekin baitzion –Beatoren antzera San Joanen Apokalipsiaren bere interpretazioa, lehenik–, munduaren amaierari eta Lurreko gaitzen arazoiei buruzko bere ikuspegia adierazteko. Jarduera hura ez zitzaion oharkabean igaro, jakina, Paulinori, eta idatzi haiek irakurtzea eskatu zuen. Fraide zaharra aho zabalik gelditu zen, eta lasterka joan zen abadearen bila. Testuak arretaz aztertuta, ondorioztatu zuten Tomas Akinoko berraragiztatu bat zutela beren artean; txori txiki hari arrano bihurtzeko bidea eman behar zioten, monasterioaren loriaren ederrez, eta halaxe bidali zuten Iratxeko beneditarren kolegiara. Hura zuten hurbilen, eta Aita Santuaren bulda jaso zain zegoen, unibertsi-tate bihurtzeko. Jakina, neofitoaren aitaren kontura izango ziren mantenua eta ikasketak; baina, hura mutikoaren harrimena, ez soilik ez zuen hark ezetzik esan, lagundu ere egin zion ikasle oso azkarrak edo oso aberatsak baino onartzen ez zituzten ikastegi hartara.

Aita-semeen arteko topaketa ez zen izan batere samurra. Orduantxe elkar ezagutu balute bezala elkarri eskua eman, eta mutu egin zuten bidaia, zalgurdi batean. Hamar urte ziren elkar ikusi ez zutela: urte askotxo. Denbora hartan guztian, don Juan ez zitzaion behin ere bisitan joan, eta, azkenerako, umezurtzat jo zuen bere burua Bernabek; eta halaxe zen, izan. Ez zuen izeba Constanzaz galdetu ere egin, hura bazen ere noizbehinka gogoratzen zuen pertsona bakarra: bere gogoan, izebak adierazten zuen kiribil luzeekiko mutikoa zen garaitik gehiago jaso ez zuen maitasuna, eta iraganeko kontua zen hura ere, oroitzapena, amets goxo bat. Iratxera iritsitakoan,

notarioa abadearekin elkartu zen; bitartean, kanpoan zain gelditu zen bera, gogoetatuz nolakoa izango ote zen bere bizimodu berria, jendaurreko aitortzetatik, zigorretik, leihorik gabeko liburutegi batean kandelen argia beste argirik gabe igarotako ordu amaigabeetatik urrun. Alde egitean, berdin-berdin agurtu zuen aita, esku-estutu batez, eta ahantzi zuen ateratzen ikusi orduko toki hartatik, non espero baitzuen topatzea bere hamaika galderen erantzuna. Eta ez hori bakarrik.

Hiru urte egin zituen Iratxen, ikasketei emanik, ongi elikatuta eta ibilaldi luzeak egitera behartuta, bere tutorearen filosofia baitzen ikasteko egokiera hobea ematen zuela gorputza sasoi onean edukitzeak; hala, mutiko ihar zurbila zena gazte sendo ederra bihurtu zen, baita ikaslerik onena ere. Haren nagusiek erabaki zuten San Bizentera igortzea, ordenak Salamancan zuen kolegiara, ikasle bikainak prestakuntza hobea jasoko baitzuen han, gero monasterioaren eta haren ikastegiaren loriaren ederrez itzultzeko. Gaztelara iritsita-koan, ordea, gazteak alboratu egin zuen unibertsitate txiki batean irakasle aritzeko helburua; Salamancako bertako Idatzi Sakratuen katedra hartu zuen jomuga. Izan ere, bigarren urtean, beneditarren kolegiotik San Esteban domingotarren komentuko Teologia Ikastegi Nagusira aldatu zen. Beneditarrek protesta egin zuten, etorkizun oparoeneko ikaslea lapurtu zietelako, eta Bernabek aitaren gutun bat ere jaso zuen, aurpegiratzen ziona ez eskatu izana berari onespena eta eskatzen baitzion itzultzeko San Bizentera, ikasketak ordaintzeari uko egiteko mehatxupean. Esan beharrik ez dago ez ziola gutunari erantzun ere egin, eta, are gehiago, abizena gaztelaniatu

zuen: Bernabe Avellaneda deitura hartu zuen, Urruztia baino askoz ere agurgarriagoa, bere ustez.

Iritsi eta hilabete batzuetara, Alonsoren laguna egin zen, zeina baitzen Zuñiga leinu handiaren bigarren adar bateko kidea. Gazte hark ez zuen elizgizona izateko inolako asmorik, familiaren erabakiz karrera hura esleitu bazioten ere, arbasoen lorpenak berdinduko zituen, eta, bide batez, pixka bat zentzatuko zen itxaropenez, kaskarin galanta baitzen. Don Luis Zuñiga Avellaneda osaba eta aitabixiaren jauregian bizi zen, baina ilobak ez zuen asko ikusten, Valladoliden igarotzen baitzuen hark ia urte osoa, erregearen zerbitzura. Hala ere, bazuen jaunak bere seme besoetakoarekiko joera berezi bat, eta kolpe zorrik gabe bizitzeko modua ematen zion diru kopuru polit batez dotatu zuen. Salamancara itzuli zen aldietako batean, bere lagunaz hitz egin zion Alonsok, ikasle bikainaz, eta hura ezagutu nahi izan zuen. Ez dago jakiterik zergatik, baina zela gaztearen gizabidea eta jakituria, zela inolako ahaidetasunik eduki ez arren beren abizenak bat zetozelako edo bere seme besoetako kaskarinarentzat eragin ona izango zela pentsatu zuelako, kontua da bere administratzaileari agindu ziola esleitzeko hari ere diru-sari bat, es-tutasunik gabe jarraitzeko ikasketak egiten. Orobat eskaini zion jauregian bizitzea, baina eskaintza hari uko egin zion Bernabek; bere baitara bilduta, ikasketetan eta otoitzean buru-belarri murgilduta bizitzea zegokion, esan zionez, bere bokazioarekin bat. Gaztearen borondate irmoarekin liluratuturik, diru-saria bikoiztu zion jaunak. Hala, ez zituen beharko berak aitatzat ez zuen aita haren dirurik, eta harreman oro eten zuen harekin, bere hastapeneko monasteriokoekin,

Iratxeko fraideekin eta iragana gogoraraz liezaiokeen guztia-
rekin. Harrezkero, xede bakar hauxe izan zuen: onena izatea.

Harritzekoa zen, halere, Alonso kaskarinarekin zuen ha-
rremana: harekintxe zuen adiskidantzazkotzat jo litekeen ha-
rreman bakarra, gainerako ikaskideekiko eta are maisuekiko
urruntasunaz oso bestelakoa. Batzuetan, hiriko kaleetan be-
rriketan ikusi ohi zituzten, Zuñigaren iloba buru zela, noski,
lagunak etorkor begiratzen zion bitartean. Izan ere, teologo-
gaiari dibertigarria iruditzen zitzaion lagunaren etorria; mu-
til ameslari eta irudimentsua zen, bera sekula izango ez zen be-
zala, beste batzuentzat pitxer bat ardo litzatekeena. Topaketa
haiek aukera ematen zioten tarte batez alde batera uzteko dok-
trinaren arrazoinamendu burutsuak, filosofo antzinako eta ga-
raikideen latinezko eta grezierazko irakurgaiak, Lutero eta
Erasmus Rotterdamekoaren tesiei buruzko bere ezeztapenak,
Trentoko Kontzilioko ebazpen buruz ikasiak, bereziki pro-
testantei eta oro har doktrina katolikoaren oinarriak ukatzen
zituzten heretikoei zegozkienak, begiramenik gabe aurka egin
behar baitzitzaiei haiei. Alonsok emakumez ere hitz egiten
zion, gai erabat ezezaguna beretzat; zehatz-mehatz deskriba-
tzen zizkion «La Jaca Parda» tabernako neskatxa batekin iga-
rotzen zituen plazerezko gauak. Elizgizon batentzat nahita-
ezkoa zen kastitatearen kontrako kontuak zirela-eta hasieran
adierazitako arbuioak jakin-minari bidea eman zion; izan
ere, esan zion bere buruari, gizaki arruntarengan berezkoa zen
sexua, eta, berak halakorik praktikatu ez arren, ezagutu be-
harko zuen zertan zetzan, hura epaitu ahal izateko.

Gauza bat zela, bestea zela, zenbait astez ezezkoa eman
bazuen ere, onartu zuen, azkenik, lagunarekin tabernara

joatea, orotariko tentaldiei aurre egiteko gai zela erabat ziur. Harrituta gelditu zen han ikusirik bere ikaskideetako batzuk eta, are okerragoa zena, baita unibertsitateko irakasle zenbait ere. Hantxe zebiltzan, neurrigabe edaten, barre algaraka, ukitu lizunak egiten zerbitzarietara eta bular goriak gerruntzeen gainetik gainezka zituzten beste emakume batzuei, zeinen lanbideaz ez baitzegoen zalantzarik. Ordura arte pentsaezina izango zitzaion galbidezko zulo batean zegoen! Infernuitik ateratako Sodoma eta Gomorra ziren hura, jakituria-
ren muinean kokatutako zulo batean. Handik berehala alde egitea otu zitzaion hasieran, baina eutsi zion: bere buruari erakutsi behar zion jainkozko suak kiskalitako hiri bekatarietan Lot aitalehenak aurkitu ezin izan zuen zintzoetako bat zela. Txoko batean erdi ezkutaturik egon zen, halere; laguna, ber-
rri, eskaileretan gora igo zen, esku batean pitxerra, eta bestearekin neskaxa bati gerritik heltzen ziola. Gerora ere itzuli zen toki hartara, eta penitentzia modura bere buruari zigorrada batzuk jo ondoren, koaderno batean idatzi zuen bisita haietako batean ikusi eta entzundakoak, bere oharrak egunen batean baliagarriak izango zitzaizkiolakoan.

Hogeita lau urte eskasekin Filosofia eta Teologiako baxtiler titulua eskuratuta, aukera zuenez lizentzia prestatzen zuen bitartean eskolak emateko, erabaki zuen ez zuela izan nahi fraide domingotarra, ez beste inongo ordenatakoa; ez zen bera esana egiteko jaioa, argi zeukan hori, ez zen arau eta konstituzioei men egiteko edo ikasketetatik distraitzen eta bere gogoetak eteten zituzten otoitz orduak betetzeko sortua, eta ez zuen izan nahi elizgizona. San Estebango prioreak eginahalak egin zituen sar zedin Predikarien Ordenako adar

laikoan, gutxienez; horrela, domingotarrei loturik jarraituko zuen, bere bizitza nahierara bizitzeko askatasuna izan arren. Baina Zuñiga jaunaren eskaintza onartzea eta jauregira aldatzea erabaki zuen berak. Orobat erabaki zuen filosofia bertan behera uztea eta Lege eta Kanonak ikastea; legelari batek teologo batek baino aukera gehiago zituen karrera politikoaren aldeko apustua egitekotan. Errege Kontseiluko kide izatea zen bere nahia, horixe ondorioztatu zuen bere ongile ilustratuarekin izandako elkarrizketetan. Itzal handiko dignatarioa eta arte bildumaria zen Zuñiga jauna, eta, adinean sartu ahala, gero eta denbora gehiago ematen zuen Salamancan. Bernabek harekin ikasi zituen unibertsitatean irakasten ez zituztenak: gorteko azpijokoak, trikimailuak, intrigak, erregetzaren mesedea lortzeko bideak, alde batekoen nahiz bestekoaren artean moldatzeko trebetasuna eta, bereziki etsairik ez egiteko modua.

–Garai nahasiak ditugu –gogoetatu zuen jaunak, ahots gora–: doña Joana Tordesillasen giltzapetuta, atzerritarren esku herrialdea, Nafarroaren auzia, komunitateen eta germanien kontua, egoera ekonomiko kaskarra, are kaskarragotua Inperioko koroa printzearen esku jartzeko espoliazioa dela-eta... Argienek beste inork ez dute hemendik onurarik aterako, edo ustelenek. Eta, aditu ongi, adiskide gaztea: ez da sinesmen kontua, ezta leialtasun kontua ere; bizirik irautean dago koska, irabazlearen alde apustu egitean, hari kontra ez egitean eta etekinak ateratzean.

Eskandalizatu egin zen halako zerbait esaten entzun zuen lehen aldian. Baina, harekin hitz egin eta botereguneen funtzionamenduaz jabetu ahala, ondorioa atera zuen jaunak

deskribatu bezalakoxea zela errealitatea: Gortean nor izatera iritsi nahi bazuen, ongi jokatu beharko zituen bere kartak. Lege eta Kanonetako maisu izatera iristerako, eskatuak zizkioten zerbitzuak beste unibertsitate batzuek eta goi prelatuek; berak, ordea, irmo eusten zion besteengan sortzen zuen mirespen hari, bere helburuari beste ezer gogoan hartu gabe. Jaun baten gisan jantzirik, beltz ilunez bazen ere, ukazina zen erakargarria zela gizonentzat nahiz emakumeentzat. Berez zuen izaera barnekoi hura alde batera uzten zue-nean, hizlari trebe gisa agertzen zen gizon isila, edozeri buruz eztabaidan aritzeko gai, maisu eta ikaskideak harri eta zur uzteraino. Hainbeste zekien eta hain sendoak ziren bere usteak, beste unibertsitate batzuetatik ere etortzen baitziren ikastunak berari entzutera, eta maiz alderatu ohi zuten frai Luis Leongoa ospetsu eta mirespenez eta begirunez oroitua-rekin. Titulua lortu zuelarik, eta Zuñiga jaunak hariak mugitu izanari esker, plaza lortu zuen Valladolideko Chancilleriaren bulegoetako batean, nahiz eta etsipen handi samarra hartu zuen, zerbait hobea espero baitzuen bere kalifikazio apartak kontuan hartuta. Baina ongileak arrazoi osoz esan zionez:

–Ez izan presarik, etorriko da etorri behar duena. Ikasi ongi gain-barren guztiak, eta erakutsi zenbat balio duzun. Chancilleria abiapuntu ezin hobea da errege kontseiluren batean postua lortzeko; eta ez ahaztu: gakoa ez da zuk zer uste duzun edo zer uste ez duzun, zer helburu duzun baizik. Orotariko pertsonaiak aurkituko dituzu bidean: jakintsuak, askonahiak, amarrutsuak, adeitsuak, ezgai erabatekoak... Ez utzi agerian, inola ere, zer zaren edo benetan zer pentsatzen

duzun: igo mailaz maila gora, harik eta zu zeu izateko eta zure kasa erabakitzeko egoeran egon arte.

Ziniko hutsa zen gizona: argi zegoen. Baina ongi baino hobeto zekien zertaz ari zen. Kontatu zionez, gogorrak izan ziren haren hastapenak: leinu handi bateko bigarren adar bateko laugarren semea, nobleziako titulurik eta oinordekotza jasotzeko aukerarik gabea eta gudarostean edo armadan karrera egitera behartua, Erreinuko gizon aberats eta ahalsuenetakoa izatera iritsi zen bere negozioei esker. Haren aholkuei jarraitzea erabaki zuen, Chancilleriako postua onartu zuen, jarduera hura hiri hartako unibertsitatean eskola ordu batzuk emanaz osatzeko asmoz, eta bere helburua lortzeko bideari ekin zion: legelari ospetsuena izatea, hain ospetsua, non bere zerbitzuak eskatuko baitzituzten prelatuek, nobleek nahiz erregeak berak.

Hamabost urte lehenago, Bernabe Iratxen zela, neska bat jaio zen, artzain familia bateko zazpigarren umea, Itzaltzun, urte ia osoa elurrez estalita egoten ziren gailurrez inguratutako bailara batean, Zaraitzun. Neska haren amak, Bernaberenak bezalaxe, jaioberria ikusi besterik ezin izan zuen egin; hartaz erditu orduko hil zen, amaginarrebak eta emaginak ezin izan baitzuten eten sukaldeko txoko batean sutondoan zegoen ohatze xumeko mihiseak gorritz tindatu zituen hemorragia. Balendinek, aitak, umea besoetan hartu, eta bi nahigabe deitoratu zituen: bikotekidea galtzea, zeinarekin batera espero baitzuen zahartzea, eta bere azken umea alaba izatea. Txikitatik maite izan zuen emazte izan zuena, artean haurrak zirela beren gurasoek bien arteko ezkontza hitzartu zutenetik; eta senarraren baserrira ezkondu zen neskatila hura, nahiz eta urtaro zenbait igaro arte ez zuten ulertu elkartze hark egun osoa artaldea gobernatzen ematea baino zerbait gehiago esan nahi zuela. Gurasotu ziren

bizitzen hasterako ia, Alodia ama eta amaginarrebak bestela gomendatu bazien ere; kezka handiz bizi izan zituen hark hirugarren bilobaren jaiotzatik aurrerako erditzeak, erraina es-tua zelako eta haren gorputzak denbora behar zuelako erdiondoetatik oneratzeko –halaxe esaten zien–, baina ez zioten jaramonik egin. Ezin zioten uko egin, ez zioten uko egin nahi, beren intimitatearen berotasunari, ezagutzen zuten plazer bakarraz gozatzeari, gauaren isilean, lastairaren gainean, sua txinpartaka entzunez.

Orain, gosearen gosez iraulka zebilen txikitxoaren zuen Barendinek kezka nagusi; amonari eman zion umea, berriro, eta hark, egun gutxi lehenago erditutako bizilagun bati, hantxe zain baitzegoen, behar izanez gero umeari bularra emateko, baita eman ere. Neska jaioberria titiburuari tiraka hasi zenean, monasterioaren esparrutik kanpo berak eraikitako harrizko etxearen teilatu gainera igo zen gizona, eta teila bat kendu zuen, hildakoaren espiritua kanpora atera zedin. Handik inguruko mendietara so gelditu zen; laster igoko zen ardiekin goi larreetara, eta orduan izango zuen pentsatzeko beta. Gero, sei alabei begiratu zien; bi negu besterik ez zituen gazteenak. Jolasean zebiltzan, Ortixa, zaharrena, zaintzaile zutela; ez zituen hamabi urte besterik, baina lau gehiago bazituela zirudien, pentsatu zuen aitak, harro, arreta guztia berriro jaioberrian jarri aurretik.

Zazpigarren alaba aieru txarra zen, ezin okerragoa. Mutikoa izan balitz, bestela izango zen, ezohiko gertaeren iragarpena, senideentzako onaldiarena; baina emea izanik... Hari zegokion patua zen... beheko ezpainari kosk egin zion aitak, onartu nahi ezik: sorgina izatea, jakinekoa zenez.

Emazteak irribarre egin zion, arrisku hori aipatu zion aldi bakarrean.

–Sineskeriak! Arrazoirik gabe ipuinak asmatzen ibiltzen diren ezjakinen sineskeriak besterik ez dira horiek. Bihozkada bat dut oraingoan mutikoa izango dela. Eta neska bada, berriz, ama bezain ederra aterako da! –esan zuen, barrez.

Belarrietan entzuten zuen haren algararen oihartzuna artean, eta bi malko irristatu zitzaizkion masailetan behera. Teilatutik jaitsi, pala hartu, eta herrikkako hilerri txikira joan zen, bere txanda etorri eta emaztearekin elkartzeko unea etorri bitartean bere maitearen gorpua ehorzteko hilobia zulatzeraz.

Bizilagunei begira eman zuen gaubeila, kopetilun, ezpainak estu, doluminei buru astindu batez erantzunez. Ohiturari jarraituz, beilarako jakiak prestatu zituzten Alodiak eta beste emakume batzuek, eta bi astoren gainean bermatutako ohol luze batean paratu zituzten denak, gurutze puntuz brodatutako lihozko mahai zapi baten gainean. Bi kandelatzarren argitan, ohe gainean zetzan hilberria, berak ehundutako hil jantzian bilduta; lo bezala zegoen, bakean, baina argizariaren koloreko zuen aurpegia, hotz. Balendinek ez zuen ezagutzen bere bizialdiko laguna izaki hil hartan, eta alabek ez zuten ulertzen deitzen ziotenean amak zergatik ez zien erantzuten, zergatik ez zituen begiak irekitzen, zergatik ez zuen irribarre egiten. Herriko gizon-emakumeak txokora hurbildu, eta gurutzearen seinalea egiten zuten; gero, aldendu egiten ziren, eta hala moduzko mahaietan finkatzen zuten begirada, janariaren usainean nolabait konjuratu nahian lehenago edo geroago denek zain zuten patua. Balendin jabetzen

zen haiek zer zerabilten gogoan, ez baitzuten galdetu ere egiten auzoko hazamaren besoetan titiko anaiaren alboan lo zegoen haurtxoaz; ongi baino hobeto zekien zer pentsatzen zuten. Zazpigarren alaba zoritxar itzela zen etxe koentzat eta mendialdean galdutako herri txiki hartako biztanleentzat; horren froga zen hura mundura sortu orduko hil izana ama. Masailezurak estutu zituen; inola ere ez zuen onartuko inork alabaren kontra ezer esatea edo egitea, baina ezinezkoa izango zitzaion haren aldamenean egotea beti eta negu asko igaroko ziren neska bere kasa moldatzen hasi arte.

Hiletara elkartutakoak urduritzen hasi eta bat baino gehiago hileta otordurako prestatutako buztinezko eltze batetik albondigak jaten ari zirela, fraide bat agertu zen Salbatzailearen eta San Migel Goiaingeruaren monasteriokoa, non gordetzen baitziren santu haien erlikiak eta zeinaren inguruan sortua baitzen herrixka. Inork ulertu ez zuen otoitz bat esan zuen, latinez; hilotzari ur tanta batzuk bota zizkion zahararren zaharrez herdoildutako ihiztailu batekin, eta, besterik gabe, sorbaldatik zintzilik zeraman larru maiztuko zorroan sartu zuen atzera; gero, jiratu, eta eskua luzatu zuen, sagardo pitxer bat seinalatuz. Handik istant batera, jan-edanari eman zitzaizkion denak, alarguna izan ezik, besterenduta baitzegoen, bakartuta elkarrizketetatik, hiletara joandakoez bapoz janda eta disimuluan bazen ere algaratxoren bat eginez ospakizuna beren omenez ez izateaz pozik sortzen zuten zarata gero eta ozenagotik. Luze joko zuen beilak, eta ezin saihestuzko gertaera zen heriotza; baina zenbat eta beranduago, orduan eta hobeto. Halako batean, ahots bat nabarmendu zen beste guztien artean, eta isiltasuna nagusitu zen: hildakoaren

ahizpetako batek erosta jo zuen, haren galera goiztiarra deitoratuz; koinata batek mirespenez hitz egin zuen ahaide eta auzoekin izan zuen jarrera prestuaz; eta gaztetako urteak eta zenduaren alaitasuna gogoratu zituen lagun batek, Halaxe omendu zuten eternitaterako bide luzeari ekin zion hura: ahapaldi bakarraz, batzuek; luzeago, beste batzuek.

Ez zuten denek gaua han igaro. Gehienek alde egin zuten, erretilu eta ontziak hustutakoan; eta erostak amaitu orduko ganbarara igo ziren etxeko alabak lotara eta inudea etxera joan zen bi haurrekin. Hala moduzko eserlekuetan, baita lurrean ere, etxean gelditu ziren hamar bat lagun, eguna argitu zen arte; orduan itzuliko ziren besteak, gorpuari azken etxera laguntzeko. Balendinek mutu jarraitu zuen, baina elkarrizketen haria galdu gabe. Batzuk erdi lotan zeuden, bizkarra hormaren kontra jarrita; beste batzuk sutondoan entretzen ziren Alodiak ordura arte gordeta edukitako patxarana hurrupa txikitari edanez; ez zen alferrik galtzeko likore preziatu hura, eta beste garrafatxo bat utzi zuen etxe-koentzat gordeta.

—Eta bataioa, noizko? —galdetu zion ontziak biltzen eta ur pegar batean garbitzen laguntzen ari zitzaizkion emakumeetako batek Alodiari.

—Zer bataio? —galdetu zuen Alodiak, ondotoxoz zekien arren zertaz ari zitzaion.

—Haurrarena, noski.

—Hiletaren ondoren.

—Izenik jarriko diozue?

Haserre begiratu zion. Zertara zetorren galdera ergel hura? Bataiatzen al zuten, ba, inor izenik gabe?

–Bere amarena.

Galdezka jarraitzeko aukerarik eman gabe, etxetik atera eta labea piztu, oraskatik artatxiki irin mordoxka bat atera eta lan-mahaian jarri zuen; irina pilatu, pilaren erdian zuloa egin, eta, ur epela eta gatza bota ondoren, nahastura oratzen hasi zen, kolpeak joz, ongi zabalduz, behin eta berriro tolestuz, etorkizun kezkarria zetorkion biloba hura burutik nola edo hala kendu nahian. Ez zuen lortu. Bere semea eta ilobetako bat berriketan ari ziren hantxe aldameanean.

–Otsagabian bada umezurztegi bat –zioen ilobak–. Eraman ezazu hara... Izebak ezingo gaitu denok aurrera atera, ezta zure alaba Ortixak ere.

–Arduratuko naiz ni.

Balendinen ahotsa bare entzuten zen, baina zakar.

–Nola, ordea? Aurki igo beharko duzu artaldearekin, eta, orduan, zer? Zurekin eraman behar al duzu?

Alodiak ez zuen entzuten jarraitu nahi, indarrez jo zuen ore. Ilobak arrazoi zuen; nahiko lan zuen sei alaba haztearekin, jaioberri batez ere arduratu behar izateko. Semearekin hitz egingo zuen biak bakarrik gelditutakoan, eta ikusaraziko zizkion nahi gabeko umetxo bat haztearen zailtasunak. Auzoko hazamak argi esan zuen ez zuela berak haziko; pare bat egunez bularra emango zion, hildakoarekin lotzen zuen adiskidetasunaren oroimenez baina kito, ez zion bere umetxoari esnerik kenduko, eta, gainera, beste hiru haur zituen. Alodiak, berriz, nahiko lan zuen eguna joan eguna etorri izugarrizko pairamenak eragiten zizkion erreuma harekin, eta senarraz ere arduratu beharra zeukan, ergelduta bezala egoten

baitzen ia beti. Ilobak esan bezala, haurra umezurztegira eramatea zen irtenbide bakarra. Orea pronto zegoen; hura zaitu, eta labean sartu zituen zatiak, banaka, labe palaz lagunduta. Inguruetatik etorritako senideei jaten eman beharko zieten ehorzketaren ondoren.

Egunsentian, hil kanpaiak entzun orduko, gorpua hil jantzian bilduta anda batzuetan ezarri, eta hilerrira abiatu ziren. Berriro ere, bezperako fraide berak latinez otoitz batzuk esan, eta Balendinek zulatutako hobian ehortzi zuten emakumea, gainean jarrita gurutze bat, bi egurrez egina; aurre-rago eskatuko zioten hilarria harginari. Jarraian, kaperan sartu ziren, haurra bataiatzeko asmoz, baina fraideak jakinarazi zien denbora batez itxaron beharko zutela, ziurtatu arte, zera, haurra... normala zela, esan zien totalka, ez zegoela deabruak hartuta.

–Bataia ezazu oraintxe –agindu zion Balendinek–, edo uste baino lehenago ikusiko duzu deabrua zure muturren aurrean.

Belarrira mehatxu doinuz esandako hitz haiek eta gizonaren begirada iluna nahikoa izan ziren elizgizonarentzat; berehalakoan bete zuen agindua, nahiz eta behar zituzten bi aita-amabitxi eta inor ez zen prestatu horretara, ez osaba-izeba, ez lagun, ez ezagunik, arriskutsua baitzen sorgin baten aita-amabitxi izatea. Balendinek bere amari begiratu zion; Alodiak besotik heldu zion senarrari, zeina ari baitzen zere-
monia entzuten irribarre ergel bat zuela aurpegian, eta biak izan ziren neskatilaren aita-amabitxiak. Haurraren izena esan ziotenean, Loredi, muturra okertu zuen fraideak, ez baitzi-
tzaion iruditu kristau zintzoaren izena.

Handik hiru astera, mendian gora zihoan artzaina, artaldea eta bi txakur zeramatzala aldean, eta haurra burusi batez soinean lotuta, atorraren eta ardi larruzko barneko motzaren azpitik. Animaliak larratu zituen, txakurrek zorrotz zainduta, eta borda garbitzeari ekin zion berak, hutsik egon baitzen aurreko udazkenetik. Hautsez beteta zegoen dena, eta gorozkiz josita zorua, baina berehala txukundu zuen dena; gero, sua piztu, eta harribil pare bat berotzen jarri zituen. Haiek berotutakoan, egurrezko katiluan sartu zituen, esne jeltzi berria epeltzeko, esnea sartu zuen adarrezko edontzi batean, muturra zulaturik eta larruzko titiorde batez amaitu zuen behi adar leundu batean, eta haurra eradoski zuen, bere gorputzaren kontra estu-estu, ezpainak itxita, kopetilun. Hamaika arkume libratu zituen heriotzatik horrelaxe, baina, jakina, haiek bazuten babeseta eta beroa emango zien artalde bat, eta bera beste inor ez zeukan, aldiz, bere arkumetxoak. Ez zegoen erabat ziur erabaki zuzena hartu ote zuen, baina huts egin ote zuen susmoa zuen; ezinezkoa zen mendian bakar-bakarrik bizi zen gizon batek jaioberria bere patu gaiztotik salbatzea, baina ezin zuen herrian utzi.

–Eraman umezurztegira –esan zion amak, temati.

–Ez dut eramango, eta ondotxo dakizu zuk ere –erantzun zion berak, tinko.

–Ez daukat jaioberri baten kargu egiterik...

–Eta ez dizut eskatu.

–Badituzu alaba gehiago...

–Badakit.

–Begi gaiztoaz jota egongo da beti neska hori...

–Zuk ere begi gaiztoaz joko duzu, ama?

Alodia mutu gelditu zen, eta Balendinen ustea berretsi zuen haren isiltasunak: zazpigarren alaba ezinbestean sorgina izango zela uste zuen amona eta amabitxiak ere. Bataioaren ondoren, fraideak zabaldu zuen mehatxupearan kristautu behar izan zuela jaioberria, eta inudeak uko egin zion hura edoskitzen jarraitzeari, esnea minduko zion beldur, esan zuenez. Horrenbestez, zurtz gelditutako txahalak eta amak arrazoi ulertezin bitxiengatik gaitzetsitako arkumeak elikatzeko erabiltzen zen adarra erabiltzea beste aukerarik ez zuen izango. Kostatu zitzaion edoskitzea, baina ezten zorrotza da gosea, eta, azkenik, haurtxoak etsi, eta lasai arnasa hartu zuen berak: kementsua zen bere alaba, eta, bera lanpetuta zebilenean, ahizpa zaharrena arduratzen zen txikiaz. Orain, ordea, biak bakarrik zeuden, eta haurra soinean eramaten ohitu beharko zuen. Saiatu zen Martina alargunaren zaintzapean uzten, emakume hura kontratatu baitzuen etxea eta alabak zaintzeko; ilargi batzuk lehenago alargundu zen, zuhaitza moztan ari zela erorketan azpian harrapatuta hil zitzaion senarra. Seme-alabarik eta hurbileko ahaiderik ez zuen, eta nola-hala bizi zen emakumea txabola batean; ez zen eskaintza txarra, beraz: ostatua, mantenua eta sosak. Baina uko egin zion «sorginak jotako» haurraren kargu egiteari: halaxe deitu zion. Ez zuen betiko alargun gelditu nahi, eta inongo gizon zentzudunek ez zuen emaztetzat onartuko jakinez gero sorgin bat hazi zuela. Hura kaleratu eta beste bat hartzeko zorian egon zen Balendin, baina emakume gaztea zen, ongi egiten zuen sukaldean eta eskarmentu handia zuen lanean; gainera, ongi konpontzen zen Ortixarekin. Ez zuen denbora askorik ere; bizkor zihoazen egunak, eta ordokiko artzainak iritsi aurretik

igo beharra zegoen aziendarekin, haiek «bere» larrea eta «bere» borda harrapatu aurretik. Halaxe, goiz batez denak agurtu, eta alde egin zuen, zama preziatua soinean lotuta zeramala.

–Burutik eginda zaude! –oihukatu zion amak, agur esatera joan zitzaionean soinean lotuta zeraman fardela ikusirik.

–Zer nahi zenuen, ba? Inork ez du nahi, ezta zuk ere, eta ez dut hemen utziko, itzultzen naizenean ez dut-eta aurkituko. Bagoaz, eta, asko eskatzea ez bada, eskertuko nizuke al-dian behin gure baserrira bueltatxo bat egitea, dena ongi dabilela begiratzera.

Ez zuen zertan kezkatu; bazekien amak halaxe egingo zuela, begiratuko zituela bilobak, baita Martina alarguna ere.

Nekeak lehertuta baitzegoen, lo gelditu zen borda txukundu eta ardiak bildu orduko. Larru batzuen gainean, haurra besoetan zuela, amets egin zuen bere maiteak irribarre egiten ziola eta halako argi koroa batez biltzen zituela bera eta umea. Ume hura, zazpigarrena, bere maitearen agur oparia zen; opari zinez berezia, kosta ahala kosta babestu beharko zuena, baita bere bizitzaren kostuan bazen ere. Ate joka zertorren udaberria, gauak artean hezeak ziren arren eta goiz askotan laino trinkoak ikusten ziren arren. Lanbroa desagertu egiten zen pixkanaka, nahiz eta halako lurrun zerrenda batzuk gelditu, lur barnetik aterako balira bezala, eta bailarak ezkutu egon eguerdira arte. Aulki baten formako harri batean eserita, Balendinek bakardade erabatekoan elikatzen zuen haurra, inguruan ez zegoela hegaztiak, bere animaliak eta aita-
-semeak beste izaki bizirik, Ori arbasoen mendi sakratuari so,

haren gailurra ikusten zela laino-itsaso batean, gorri egun-sentian, gorri arratsean.

–Begira, nire Loredi laztana: zu zara erreinu honetako printzesa, eta huraxe da zure gaztelua –esaten zion haurrari, mendia seinalatuz.

Balendinek ez zuen sinesten ipuin zaharretan, bai, ordea, bere amonak, amaren aldekoak, eta sutondoan ipuin kontari aritu zitzaizen, hil zen arte. Ongi gogoratzen zuen Balendinek, aulki batean eserita, egurrezko koilara batez eltzeari eragiten, esaten zutenez sorginek edabeei eragiten zieten moduan, baina ez sorgin-edabe bat prestatzeko, barazkiak haragiarekin baizik, oilaskoarekin edo untxiarekin, oro har. Suaren argitan, ordea, haren gorputz txiki konkortuak, aurpegi eta esku zimurrek, halako tankera artegarri bat ematen zioten, berak bezain ongi ezagutzen ez zuen edonor larritzeko modukoa. Amona bigarren ama izan zen beretzat, ama bera ez esatearren, eta hari kontatzen zizkion bere nahigabeak, baita ilusioak ere, eta ez zen aspertzen haren jainkosa, erraldoi eta herensuge ipuinak entzuten, biek baitzituzten oso gustukoak.

–Mendian dagoenean, harkaitz artetik ateratzen da haren sutondoko kea –esaten zion.

–Mendian egon, nor? –galdetzen zuen berak, ongi baino hobeto zekien arren erantzuna, beti berdina.

–Bera, Amari: den guztiaren ama.

Orain, bere txikia elikatzen zuen bitartean, harkaitzean katigatutako hodeiei begiratu, eta pentsatu nahi zuen arrazoi zuela amonak, hantxe bizi zela zen guztiaren ama eta hark zainduko zuela berak beste inork maite ez zuen haur erdi umezurtza.

Hurrengo egunetan, artzain eta artalde gehiago iritsi ziren mendikatearen alde bietatik: ezagunak zituen batzuk; beste batzuk, ez. Zein bere bordan finkatzen ziren, edo han igaro beharreko denboran irauteko moduko txabola bat erakitzen zuten harriz eta adarrez; batzu-batzuek oihal etxolak jartzen zituzten. Elkarri traba ez egiteko adinako tartea uzten zuten batetik bestera. Baina topo egiten zuten, tarteka, erreka edo iturbegietara joaten zirenean ura edatera edo garbitzera, eta elkarrekin egiten zuten otordua; goi mendietan, mantso igarotzen zen denbora, eta gustura hartzen zen aldian behin hizketalditxo bat. Balendinek saihestu egiten zituen; ez zuen berak berriketarako gogorik, eta haurrak betetzen zizkion ordu libre guztiak. Ezin izan zien ez ikusiarena egin, halere, bere txabola ipar haizetik babesten zuen goragunearen atzeko txabolako bikote jada helduari eta haien alabari; haien txabola zegoen beretik hurbilen, eta urteak zeramatzaten inguru hartara igotzen. Erronkarikoak ziren Xuban, Auria eta Joana, berak neska kozkortzen ikusia, eta berandu gabe agertu zitzaizkion bordan. Itzuri egin zien zenbait aldiz, baina zirimiria atertu gabe bota zuen egun bateko arratsean bisitan joan zitzaizkion baratxuri zopaz beteriko buztinezko eltzea, sagardoa eta ogi eder bat zeramatela. Harri eta zur gelditu ziren hirurak, haurra elikatzen topatu baitzuten Balendin.

–Nire azken alaba –esan zien–. Umea egitean hil zen ama.

Kosta zitzairen beren onera etortzea, haurra itxuraz ongi aseta lokartu ondoren ere. Orduan azaldu zien Balendinek zer egoeratan zegoen, nola ez zuen aurkitu haurra bere gain

hartuko zuen inor, ezta amona bera ere, eta nola ez zuen izan berarekin mendira igo beste erremediorik.

–Baina ez naiz, nonbait, gaizki-gaizki ari... –esan zuen, ironiaz, haurrari ezpain ertzetan gelditutako esnea garbitzen zion bitartean.

–Ez dut ulertzen –esan zuen, azkenean, Auriak–. Nola li- teke zure herrian jaioberri batez arduratzeko inor ez egotea?

–Halaxe da, ba.

–Eta zure beste alabak?

–Emakume batekin eta nire amarekin gelditu dira, baina ez emakume horrek ez amak ez zuten nahi alaba hau hartu.

–Zer ba?

Dela adoregabetuta zegoela, dela hitz egiteko premia zuela edo arbuio haren arrazoiak jakinik alde egin eta sekula itzuliko ez zirela uste zuela, bikotekidearen heriotzaz hitz egin zien, begirada sutondoan iltzatuta, baita izaki babesgabe ha- ren zorigaitzaz ere: zazpigarren alaba izatea, ahaide eta he- rrikideek jaiotzatik beretik kondenatua.

–Ziur nago: nik alde egin bezain laster hiltzen utziko zu- ten, edo Otsagabiko umezurtz etxera eraman, bestela. Ho- rregatik naukazue hemen inude lanak egiten.

Balendinek harrimenez ikusi zuen emakumea besoak luzatuta haurra besoetan hartzen.

–Nola du izena?

–Loredi.

–Izen ederra, lorerik xumeena ere baita ederra.

Balendinek irribarre egin zuen, emaztea zendu zenetik le- hen aldiz.

Horretaz hitz egin edo ezer adostu gabe, egunero joaten hasi ziren bere bordara Auria batzuetan Joana besteetan, eta berenera eramaten zuten edozein aitzakia jarrita. Hasieran, hutsik bezala sentitzen zen Balendin, denbora asko igaro baitzuen haurra soinean lotuta; gorputz atal bat erauzi baliote bezala sentitzen zen, eta laster joaten zen alabatxoaren bila. Baina, denborarekin, ohitu egin zen, eta haurraz ahaztu ere egiten zen ardiak gobernatzen, jezten eta gazta egiten ari zen bitartean; ez zuen handia artaldea, artzain bakarrarentzako tamainakoa, baina egun osoa hartzen zion. Alabaren bila joaten zenean, ongi elikatuta eta garbi aurkitzen zuen, eta ez hori bakarrik: Xuban zaharra Uztarrozera jaitsi, eta saski handi bat ekarri zuen, sehaska modura erabiltzeko. Emakumeek, berriz, artilezko arropa ehundu, eta erre egiten zuten saroirra igotzean soinean zeramana, artile gordinaren kolorekoa, higa-higa eginda baitzuen, eta belztuta, zikinaren zikinez. Pixkanaka, Balendin ohitu egin zen arratsa eta iluntzearen parte bat hiru pertsona haiekin igarotzera, adoptatu baitzuten ez haurra bakarrik, baita bera ere.

Sei hilabete haietan, bi bider besterik ez zen jaitsi Itzaltzura, gazta dozena bana jaistera, Santxot lehengusuak Otsagabian saldu eta dirua Alodiari eman ziezaion. Bakarrik jaitsi, beste alabak onik zeudela egiaztatu, eta ez zionez amari erantzun ere egin Lorediz galdetu zionean, amonak pentsatu zuen sorginak jotako biloba hila izango zela ordurako, eta zeruari eskerrak eman zizkion, patu onari esker ez baitzuten izango disgusturik etorkizunean. Gero, Martina alar-gunaz, hark etxea eta haurrak gobernatzeko zuen esku onaz eta bien arteko harreman bikainaz hitz egin zion.

–Horixe behar duzu zuk –esan zion amak–. Gizon baikartia, sei alabaren aita, udaberritik udazkenera kanpoan dabilena... Beharko ez duzu, ba, gauza guztiez arduratzeko emazte bat!

Horri ere ez zion erantzun; ez zuen inolako asmorik maitasunezko harremanik hasteko ez emakume harekin, uko egin baitzion bere alaba jaioberria zaintzeari, ezta beste inorekin ere. Hilerritik pasatu zen, eta ikusi zuen amak eskatu ziola harginari hilobirako hilarria; izenik ez zuen arren, lore bat zizelkatuta zuen bakarra zen. Fraidea ere ikusi zuen monasterioko atean, baina ez zuen hura agurtzeko lanik hartu, eta erantzun ere ez zion erantzun hark abegizko keinua egin zionean; beragatik, kiskal zitekeen sinestunak izutzeko hitzetik hortzera aipatzen zuten infernu hartakougarretan. Handik bi egunera etxeokak agurtu, eta goi larreetara igozteko bidea hartu zuen atzera, non ez baitzegoen ez aurreiritzirik ez sineskeriarik, ez esamesarik eta txutxu-mutxurik: Natura eta haren hotsak baino ez, eta bere bihotzeko Loredi.

Ohi baino lehenago etorri ziren elurteak, eta goiz jaisten hasi ziren artzainak neguko larreetara edo herrira. Balendinek ez zuen alde egin nahi bikotekidea hil ondoko etsipenetik suspertzeko toki aparta izan zuen mendiko aterpetik, baina geruza zuri batez ia erabat estalita zegoen belarra, eta gero eta haize eta hotz handiagoa egiten zuen.

–Gu beste inor ez da gelditzen jada, eta buru asko galduko ditugu hemen luzaro geldituz gero –ohartarazi zuen Xubanek.

–Jaitsi zuek, laster joango naiz ni ere –erantzun zion Balendinek, bere kezkek agerian utzi gabe.

Jaitsi beharko zuen, noizbait, bazekien; erditzeaz zeuden artaldeko eme heldu gehienak, eta toki segurura eramane behar zuen artaldea, baina ezin zuen burutik kendu Oriko bere printzesa txikia, biloba begitan hartua, herriko jendeek arbuiatutako haurra, zeinak bete baitzuen amak Balendinen bihotzean utzitako hutsunea. Ez zuen izan beste alabekin halako harreman estua; are gehiago, ez zien ia jaramonik egin harik eta hizketan hasi ziren arte, eta, orduan ere, asko ez. Lore-di berezia zen, ordea. Ez zen nekatzen hari begiratzeaz eta besoetan kulunkatzeaz; txilar eztiaren koloreko begi ilun haiek zerbait esan nahi baliote bezala begiratzen zioten, haren barreak barre eginarazten zion berari, eta maitatua sentitzen zenaren lasaitasuna transmititzen zion haren lo lasaiak. Hala zebilela, Auria bordan agertu zitzaion ezustekoan.

–Bihar bertan jaitsiko gara –esan zion, agurtu ere egin gabe–, ez daukagu gehiago egoterik, eta gurekin eramango dugu haurra.

Hizketan jarraitu zuen, Balendini erantzuteko astirik ere eman gabe.

–Itzulera atzeratzen ari zara, beldur zarelako zuretarrek haurra arbuiatuko dutela, kalte egin nahiko diotela, baina ondotxo dakizu ezin dituzula hemen igaro hilabete hotzak, animaliak galtzeko arriskuan. Ez ezazu ahaztu beste alaba batzuk dituzula eta haiez arduratzeko betebeharra duzula. Hizketan aritu gara, eta erabakita daukagu: gurekin eramango dugu Lore-di. Guk zainduko dugu zure partez, eta hementxe elkartuko gara datorren udaberrian. Hala ere, Uztarrozetik egun erdi baino gutxiagora zaude, eta nahi duzunean etor zaitezke bisitan.

Gustura erantzungo zion gai zela bera alabaz arduratzeko, haren kontra ezer egin edo esatera ausartzen zenari aurre egiteko; baina ezin zuen ukatu Auriak arrazoa zuela. Gainera, ez zuen alaba jarri nahi jende sineskeriatsuen maltzurkeriaren mehatxupear, gai baitziren asmatzeko haurtxo xalo bat gaiztoa zela; alaba arbuioaz konturatuko zen, eta alaitasuna galduko zuen betiko. Pentsatu ere pentsatu izan zuen dena ahaztea izango zela onena: etxera sekula ez itzultzea, artaldea hartuta Bardea aldera jotzea. Baina gizon zintzoa zen, eta beste sei alaba zituen bere premian zeudenak; ez zen bidezkoa haiek ahanztea, bere maitasunaren fruitua baitziren haiek ere, eta zegoen tokian zegoela madarikatu egingo baitzuen bikotekideak, halakorik eginez gero. Nola demontre igartzen ote zion bere pentsamenduari Auriak? Bere amonaz gogoratu, eta irribarrea atera zitzaion nahi gabe; amonak beti asmatzen zuen zer zerabilen buruan.

—Gogoan izan ez zaudela bakarrik —esaten zion kezkatikusten zuenean—. Utzi laguntzen, beti aurkituko duzu une zailetan laguntzeko prest dagoen espiritu ongileren bat.

Hiru haiek ziren, Xuban, Auria eta Joana, bere espiritu ongileak. Egunsentian, haiek Erronkari aldera jaisten ikusi arte itxaron, txakurrei txistu egin, eta Itzaltzura abiatu zen.